



Eusko Jaurlaritzak diru laguntza txikiagoa emango dio HITZAri

BEHERA ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK iaz baino 29.925 euro gutxiago jasoko ditu; beste 'Hitza' guztietan ere, antzeko egoera ▶ 2



Bonberenea Txarangaren doinuak, kalean

TOLOSA ▶ Hiru urtez lanean aritu ondoren, sendotu da Bonberenea Txaranga. «Elkarte bakoitzak txaranga bat zuen bezala, guk ere bat ateratzea erabaki genuen. Herriko gazteez osaturiko Bonberenea Txaranga sortzea pentsatu genuen, eta

bakoitzak bere txaranga uztea», azaldu dute taldekideek. Batera eta bestera emanaldiak eskaintzen aritu ondoren, estudioa sartu eta diskoa grabatu dute. Gaur bertan aurkeztuko dute, Donostian. 6. urteurrena ere ate joka dute etxean. HITZA ▶ 4-5

BERASTEGI ▶

Kultur Astea amaituta, emandakoaz gustura

Etxeberria, Otermin eta Eraso irabazle igandean ▶ 6

ASTEASU ▶



HITZA

Soziokultural Zentroko zerbitzuak martxan

730 mila euroko kostua izan du proiektu osoak ▶ 3

Larrutan egiteko HIRU gutxienez



Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimendua

www.ehgam.org

HEDABIDEAK ▶

Eusko Jaurlaritzak diru laguntza txikiagoa emango dio aurten HITZARI

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak 37.437 euroko diru laguntza emango dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, iaz baino 29.925 euro gutxiago



Zenbait lagun, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irakurtzen. JOXEMI SAIZAR

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak euskarazko hedabideak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko ematen dituen diru laguntzek behera egin dute aurten. Iaz, 3.805.771 euro eman zituen; aurten, ordea, 3.800.000, 5.771 euro gutxiago. KPI kontuan hartuz gero, jaitsiera hori nabarmenagoa da. Jaitsiera horrek eragin egin dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI ere, iaz baino gutxiago jasoko duelako Eusko Jaurlaritzatik.

2005eko diru laguntzak dira horiek, eta gaur argitaratu dituzte EAEko Agintaritzaren Al-

dizkarian. Ondorioz, urtarilla bitartean jaso dezakete deialdian sartu ziren hedabideek diru laguntzen lehenengo zatia; zentzu horretan, litekeena da laguntzen kopuru osoa datorren urtean jasotzea. Behin eta berriro kritikatu dute euskarazko komunikabideek Eusko Jaurlaritzak oso berandu banatzen duela dirua, baina aurten ere berandu jasoko dute laguntza.

Egunerokoek ere gutxiago

Aurten *Berria*-k 1.400.000 euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzatik, iaz baino 50.191 euro gutxiago. Kopuru hori da, hain zu-

zen ere, tokiko egunerokoei igo dietena. Zehatz-mehatz, iaz, tokiko egunerokoei 249.809 euro jaso zituzten, eta aurten 300.000 euro (50.191 euro gehiago). Baina iaz, *Berria*-z gain, tokiko bost eguneroko zeuden (TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, *Oarsoaldeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, *Urola Kostako Hitza* eta *Kronika*), eta aurten beste bi gehiago daude (*Goierriko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza*). Ondorioz, bai *Berria*-k, bai tokiko egunerokoei diru laguntza gutxiago jasoko dute 2005ean.

Eusko Jaurlaritzak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI aurten 35.824 euro ematea eraba-

ki du. Diru kopuru hori egunkariaren paperezko ediziorako da. Eskualdeko euskarazko egunkariaren webgunerako, www.tolosaldekohitza.info-rako, 1.613 euro emango ditu Eusko Jaurlaritzak. Bi kopuru horiek batuta ere, diru laguntzen kopurua jaitsi egin da, hain zuzen ere, iaz baino 29.925 euro gutxiago.

Beste *Hitza* egunkariaren egoera ere antzekoa da; izan ere, *Urola Kostako Hitza*-k, *Goierriko Hitza*-k eta *Irutxuloko Hitza*-k izan ezik, beste guztiak iazko diru laguntzak jaso dituzte, baina kopuruak jaitsi egin dira.

Beharakada nabarmenena *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*-k izan du: 2004an baino 38.195 euro gutxiago jasoko ditu aurten; *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*-k, esan bezala, iaz baino 29.925 euro gutxiago jasoko du. Eta *Oarsoaldeko Hitza*-k 23.067 euro gutxiago. *Goierriko Hitza*-k eta *Irutxuloko Hitza*-k aurten jasoko dute lehendabiziko aldiz diru laguntza; hurrenez hurren, 46.883 euro eta 52.400 euro.

Beste hedabideak

Hainbat sailetan murriztu dira Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak; esaterako, aldizkariak diru gutxiago jasoko dute aurten: iaz baino 50.661 euro gutxiago; iaz 1.630.661 euro jaso zituzten, aurten 1.580.000 euro. Murrizketa hori, batez ere, tokiko aldizkariak jasango dute, iaz baino 31.648 euro gutxiago jasoko dituztelako. Al-

EGUNKARIAK

Aurten iaz baino euskarazko egunkari gehiago daude, eta iaz zeudenen diru gutxiago jaso dute 2005ean

SEKTOREA

2005ean ere proiektu berriak sortu diren arren, Jaurlaritzak aurten iaz baino diru gutxiago banatu du

2006an?

Aurten Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren diru laguntzak jaitsi egin dira. 2006an ere bai, nahiz eta balitekeen 2006an ere proiektu gehiago sortzea? Euskarazko prentsaren sektoreak eskaera bat egin berri dio Eusko Jaurlaritzari: sektoreari eman ohi dion diru laguntzen partida milioi euro bat handiagoa izatea. Bileratan ari dira bi aldeak. Diru laguntzen ordainketa aurreratzea era eskatu du sektoreak. ◀

dizkari espezializatuek ere 22.152 euro gutxiago. *Elhuyar* zientzia aldizkaria, *Jakin*, *Aizu* eta *Nabarralde* dira diru laguntza gehiago jasoko duten bakarrak. Haur eta gazte aldizkariak, iaz baino 14.200 euro gehiago jasoko dute aurten, nahiz eta *Gaztetxulo*-k iaz baino diru gutxiago jasoko duen.

Irratietan, iaz baino 35.000 euro gehiago jasoko dute. Hala ere, 2002an eta 2003an baino gutxiago. Tokiko telebistek dagoenez, 19.000 euro gehiago banatuko ditu aurten Eusko Jaurlaritzak. Sail honetan, ordea, 2002an baino 300.758 euro gutxiago jasoko dute aurten.

On line argitalpenek 90.000 euro jasoko dituzte aurten Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailetik.



jantzi hitza_{ren} jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

**BANATZAILEA / BUZONEATZAILEA
BEHAR DA**

TOLOSALDEKO HITZA BANATZEKO

Lan baldintzak:

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu lehen bait lehen
943 30 35 33 telefonora.

ASTEASU ▶ GIZARTEA

Soziokultural Zentro berriko zerbitzu guztiak martxan

Osakidetzako kontsultategia, KZgunea, elkarten bulegoa, erabilera anitzetarako bi gela eta liburutegia ditu



Soziokultural Zentro berria; martxan dira dagoeneko bertako zerbitzu guztiak. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Martxan daude dagoeneko Asteasuko Soziokultural Zentroaren zerbitzu guztiak. Azaroaren hasieratik KZgunea eta ikastaroak hasi baziren ere, pasatu den astelehenean hasi ziren funtzionatzen Osakidetzako kontsultategia eta liburutegia. «Herria hazten doa eta ekipamendu egokiak behar dira hazkunde horri aurre egiteko», azaldu dio Hitzari Iñaki Aménabar Asteasuko alkateak. «Bai lekua eta baita zerbitzuak ere hobetu egin dira», azaldu du Maite Iraola Kultur Etxeko arduradunak. «Leku gehiago dago eta hobeto egokituta, eta liburutegi guztia informatizatzen ari gara». Lan horren arduraria Iñaki Goikoetxea liburuzainak du.

Eraikuntza eta obra proiektuak 600.000 euroko kostua izan du. Horren %65 Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte sailak jarri du. Ekipamenduari dagokionean, 130.000 euroko kostua izan du. Kasu honetan, bi izan dira jasotako diru laguntzak. Alde batek, Nekazaritza saileko Erein programak eman duena Kultur

Etterako, hau da, 54.000 euro. Bestetik, kontsultategirako Osakidetzak emandakoa, hau da, 8.000 euro.

Hiru solairu

Soziokultural Zentro berriak hiru solairu ditu. Behe solairuan kokatzen dira Osakidetzako kontsultategia —goizero izaten dira medikua eta erizaina— eta KZgunea —09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara— daude.

Lehen solairuan erabilera askotariko bi gela daude, nahi denean gela batean bihurtzen direnak. Egun, hainbat ikastaro ematen dira bertan: helbuentzako euskara ikastaroa —bi talde sortu dira aurten—; gurasoek urtetan bultzatu duten ingeles ikastaroa; bertso eskola eta musika ikastaroak —solfeo, txistu, trikitixa eta panderoa—. «Lehen beste espazio batzuk izaten zituzten ikastaroak emateko, baina ez zeuden ondo egokituta», dio Iraolak. «Egoera hori aldatu egin da gela hauekin». Gela hauetan ere bilera handiak edo hitzaldiak egiteko ere aurreikusita daude.

Solairu berdinean elkarten bulegoa deitu diote gela bat dago. Herriko taldeei eskaintzen zaien espazio bat da, eta bertan dute mahai bat bilerak egiteko, ordenagailu bat bere lanak bideratzeko eta armairu batzuk bere gauzak gordetzeko. Dagoeneko erabiltzen ari dira zenbait taldeek, kantuan aritzeko sortu berri den taldea, esaterako. Lehen solairuan kokatzen dira ere komunak.

Bigarren solairuan liburutegia dago. Esan bezala, informatizazio lana burutzen ari dira. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako liburutegien arteko sarean dago Asteasuko, eta horrek elementu guztiak informatizatuta izatea eskatzen du. Zerbitzuari dagokionez, beste aldaketa batzuk ere izan dira. Esaterako, lau ordenagailu jarri dira CD-Romak kontsultatzeko edo interneten nabigatzeko. Bestalde, ikasi edo irakurtzeko lekuak handitu egin dira aurreko liburutegiari dagokionez. Eraikina lehio handiekin diseinatu dute eta, beraz, argi asko sartzen da liburutegi berrian. Orduetgia, asteleheneetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara da.

VILLABONA ▶ AGENDA 21

Herri batzarra egingo dute gaur

Villabonan, Ernio-bea Udaltalde 21 osatzen duten beste udalerrietan bezala, Tokiko Agenda 21 egitasmoa burutzen ari dira. Prozesuaren baitan egiten den pausoetako bat herri batzarra da. Asteotan Ernio-bea Udaltalde 21eko udalerrietan egiten ari dira batzar hauek, eta gaurkoan Villabonari egokitu zaio. 19:00etan egingo da, udaletxean, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

ANOETA ▶

KZguneko zerbitzuaren gaurko ordutegia

KZgunean gaur jubilatu talde batek mintegi bat izango du, 17:00etatik 19:00etara. Beraz, KZgunera joan nahi dutenek mintegiaren aurretik edo ondoren egin behar dute, hau da, 16:00etatik 17:00etara edo 19:00etatik 20:00etara.

ANOETA ▶

Eskulanetako ikastaroan izena emateko aukera

Udalak eskulanetako ikastaro antolatuta du. Hainbat teknika erakutsiko dituzte. Urta-rrilaren 12tik ekainaren 8ra izango da ikastaroa. Prezioari dagokionez, partaideek materiala soilik ordaindu behar dute. Izen-emate epea bihar amaituko da.

LEITZA ▶ AZOKA



Afrodita izena jarri dioten txerriari atzo egindako argazkia. J. ASTIBIA

Arro baserriko txerria, Santo Tomas jaietan

Donostian egiten den Santo Tomas jaiegunean txerri bat egoten da ikusgai Konstituzio plazan. Aurtengoan, Kristina Jauregi leitzarrak bere Arro baserrian duen txerria izango da protagonista. Ez zuen izenik, baina antolakuntzakoek Afroditza izenarekin *batiaitu* dute. Pisuari dagokionez, azken asteraino ez dute pisatuko. Beraz, eta bestelakorik zabaldu bada ere, oraindik ez dago jakiterik zenbat pisatzen duen. Jan, berriz, artoa, garagarra, eta eirea (txerrietgia) egina dagoen lekuan gaztainondoak eta haritzak daudenez, gaztaina eta haritz ezkurra ere jan ditu urtate honetan.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Abenduaren 3an Euskararen Eguna izango da, eta hainbat ekitaldi burutuko dira egun horren harira. Nola ikusten duzue euskararen egoera eskualdean? Zer dago ospatzeko? Zer dago hobetzeko? Sartu webgunean eta eman zure iritzia.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Motorra. KTM EXC 250 endurokoa. 2005ekoa. Matrikulatuta. Egoera onean. Deitu 618 25 49 60 telefono zenbakira.
Autoa. Fiat Brava diesela salgai. Nahiko berria. Deitu 943 11 71 60 telefono zenbakira.
Autoa. Renault Space. Motorra 2.200 DCI. 2001ekoa. Deitu 649 89 98 03 zenbakira.

GONZALO PEREZ ▶ EKUADORTARRA

«Pixkanaka, ari gara bertakoak eta etorkinak erlazionatzen»

Ibarran bizi den ekuadortarrak parte hartu du Kultur Trukean

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar emango diote amaiera Ibarrako Udalak antolatutako Kultur Trukeari, baina oraindik ere hainbat ekitaldi izango dira: Ekuadorreko artisuen produktuen eta Ibarrako Ezpeletako, Ekuadorreko eta Saharako argazkien erakusketa, Maite Frankoren ipuin kontaketa, eta Ekuadorri buruzko bideo emanaldia. Hala, Gonzalo Perez, Ibarran bizi den ekuadortarra ere ari da Kultur Trukean.

kearen ekitaldietan lanean, eta harekin aritu da solasean HITZA.

Zertarako balio dute Kultur Trukea bezalako ekimenek?

Hemengo Ibarra eta Ekuadorreko anaituta daude, eta horrelako ekimenek Ekuadorreko ezagutzera emateko laguntzen dute, eta eskertu behar dago. Gure kasuan, oso gustura hartzen dugu parte hartzerako ekitaldietan. Bestalde, Ekuadorreko ez ezik, beste herrialde batzuk ere hartu dute parte;

beraz, are egokiago, kulturazintasunak batak bestearengandik jasotzea esan nahi baitu.

Ekuador hobeto ezagutzeko zer eskaini duzue?

Batetik, Ekuadorreko artisuen erakusketa txiki bat jarri dugu, eskuz eginiko hainbat produktuekin. Eta bertako argazkiak ikusteko parada ere izango da gaur. Bestetik, bihar Ekuadorreko toki turistikoetako buruzko ikus-entzunezko bat jarriko dugu, bertako paisaiak, jendea, kultura, tradizioak, artea... ezagutzeko.



I. TERRADILLOS

4 urte daramatzazu hemen bizi. Nolako da etorkinen egoera?

Lehen ez zegoen ia erlaziorik bertakoen eta etorkinen artean, baina pixkanaka ohitzen ari gara eta normaltasunez erlazionatzen gara. Gure kasuan, bertakoen ohiturak ikasten saiatzen gara. ◀

BERASTEGI ▶ KULTURA

Gustura, aurtengo Kultur Asteak utzitakoarekin

Etxeberria, Otermin eta Eraso izan ziren igandeko hiru lehiaketetako irabazleak

ERREDAKZIOA

Igandean amaitu zuten Berastegiko Kultur Astea. Eta amaiera emateko, ekitaldiz beteriko eguna izan zuten; goizean, azoka berezia izan zen bertako produktuekin, eta tartean Gazta Lehiaketa eta Posturik onenari saria banatu zituzten. Hala, Andres Etxeberria izan zen txapeladuna Gazta Lehiaketan, Mari Karmen Zinkunegi bigarren eta Iker Ugartemendia hirugarren. Posturik onenaren saria, berriz, Ederne Oterminen irabazi zuen. Bestalde, argazki rally-ko irabazleak ere jakin ziren igandean; irabazlea Aloña Eraso izan zen, eta Jabier Mujika eta Maialen Etxeberria sailkatu ziren ondoren. Igande arratsaldean, talo, ardo eta sagardo dastaketa egin zuten.

Kultur Astearen harrerari dagokionez, gustura azaldu dira antolatzaileak, eta herriari parte hartu duela adierazi dute.

Kultur Astearen harrerari dagokionez, gustura azaldu dira antolatzaileak, eta herriari parte hartu duela adierazi dute.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

Babarrun jatea igandean, Gazte Taldeak antolatuta

Triki poteoa egingo dute bazkariaren aurretik; Hernanira joateko autobusa antolatu dute festarekin han jarraitzeko



Babarrun jatea egingo dute Amezetan; argazkian, Tolosan egindakoa, Berazubiko festetan. M. SAN SEBASTIAN

ERREDAKZIOA

Igandean, Amezetako Gazte Taldeak antolatuta, Zazpi Iturri elkartearen bertsu bazkaria egingo dute. Pasa den urtean bezala, bertan ariko diren bertsoariari Jokin Uranga eta Xabier Silbeira izango dira.

Eguerdian hasiko da festa triki bertso poteoarekin; hain zuzen ere, 12:30ean hasiko da. Errekaldeetik abiatuta. Ondoren, 14:00ak inguruan, babarrun jatea egingo dute elkarte-

an ohiko menuarekin, bertsolariak alaituta. Bazkaria amaitzean, berriz, autobusa jarriko dute Hernanira joan eta festa bertan jarraitzeko.

Amezetako Gazte Taldeak herritar guztiei luzatzen die gonbita eta, joan nahi izanez gero, herriko tabernetan txartelak 21 euroren truke salgai daudela azaldu dute. Bestalde, jende nahikoa ez badago, Hernanira joateko asmoa dutenek, diru gehiago ordaindu beharrik dutela zehaztu dute.

Aurtengo egutegia salgai

Bestalde, pasa den urtean bezala, aurtun ere Amezetako Gazte Taldeak herriko egutegiak kaleratu berri ditu. Aurtengoan, gainera, tamaina handiko herriko sei argazkirekin hornitu dute egutegia. Amezetako Gazte Taldeak eginiko egutegia eskuratu nahi dutenek herriko tabernetara edo dendetara jo beharko dute, eta lau euroren truke jaso ahal izango dute.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO
HITZAN

salgai

Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalerako:

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak



hitza

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Jostetan, elkarrekin

Jostailu eta jolas kooperatiboen inguruan hizketan aritu dira Erleta eskolako gurasoak, baita umekin jostetan ere, Prebentzio Programarekin elkarlanean



Elkarkidetzeta eta laguntasuna bultzatzen duten jokoetan aritu ziren, Erletako jantokian. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Taldea jarri, eta marrazkiz betetako kartulinaran, esate baterako, a hizkiz hasten diren irudiak bilatu, hondarrezko erloju bat hustutzen den bitartean; talde bakoitzak zein irudi aurkitu dituen ozen esan eta desberdin guztiak elkartu». Hauxe zen joko bat: bakoitzak bereak bilatu zituen, baina guztienak batuz, askoz ere gehiago zirela ikusiz. Edo, «jauskailua denon artean hartu eta gora eta beheera batera eraginez haizea hartuarazi ondoren askatu eta hegan bidali». Denon ahaleginarekin, halako azalera handiko oihala airean ikusi zuten.

Leitzako Erleta eskolako Lehen Hezkuntzako aurreneko eta bigarren mailako ikasleek joko eta jolas kooperatiboetan ibiltzeko aukera izan zuten, horrela, herenegun arratsaldean, Denok bat guraso elkarrekin eta Prebentzio Programaren eskutik etorritako Kometak taldeko kideekin. Aitaututako jokuak bezalako beste hainbatean ibili ziren, batzuk fisikoak, besteak mahai jolasak, baina guztiak «elkarren arteko lankidetzeta eta partekatzea bultzatzen» dutenak, hots, kooperatiboak.

Izan ere, jostetan hasi aurretik, gurasoek hitzaldia izan zuten Olatz Aldabaldetretu pedagogoa emana, Kometa elkarte kidea bera, eta «jostailu eta jolas kooperatiboak» izan zituzten mintzagai. Bertan umeen heziketa eta formakuntza jostetan duen garrantziaz aritu ziren, «lankidetzeta, elkar-kidetzeta, partekatzea moduko baloreak erakusteko oso tresna baliagarria» dela kontutan hartuta: «Haurrak jolasean ari diren bitartean jarrera batzuk edo beste batzuk baloratu dai-



Guztien eginahala behar! J. ASTIBIA

tezke: lortu beharreko edo gaudituzko beharreko zerbaiten aurrean, helbururako lehia sortzea edo jolaseko lagunen lankidetzeta bilatzea; lagunari irabaztea edo lagunarekin irabaztea. Jolas hauekin, bigarren hori dugu helburu», azaldu zuten.

Horretarako jolas hauen ezaugarriak izaten omen dira, lortu beharreko erronka bat izatea, gaudituzko beharreko ozepto bat izatea, sari bat eskuratzea, aurkako zerbait izatea... eta aurrera egiteko, «jolas lagunen beharra» izatea, ondorioz, «irabazten bada, denok irabaziko dute, eta galtzen deanean, ere bai: ez dago galtzaile eta irabazleen arteko desberdinketarik», argitu zuten.

Horrela mintzatu ziren atzokoan Prebentzio Programarekin ere, HITZAREkin: «Baloreen trasmisorako modu bat da jolasak», adieraziz, eta zentzu horretan guraso eta hezitzaileei baliabide egokiak eskura jarri eta horien ezagutza aukeran jartzea zuten helburu eta «oso balorazio baliagarria» egin zuten: «Han ikusi zen, praktikarekin, nola mahai jolas batean ari zirela galdu zutelarik, 'beno, beste batean irabaziko dugu' esanez, ez zitela halako garrantzirik eman galdu izanari; eta irabazi zuten beste batean, 'irabazi dut!' esan ordez, 'irabazi dugu!' oihukatzen zutela. Han ikusi zen», zion teknikariak.

Gauden urtebean egonik, Eguberriak ate joka daude, «egokitzat jo» zuten antolatzaileek gai hau gurasoekin jorratea.

OLATZ ALDABALDE TREKU ▶ PEDAGOGOIA, KOMETA ELKARTEKO KIDEA

«Haurrek batez ere ongi pasatu eta zoriontsu izan behar dute»

Olatz Aldabaldetretu pedagogoa, Euskal Herrian joku kooperatiboak hedatzen dituen zerbitzu bakarreko kide da eta, haurrekin ez ezik, gurasoekin ere lan egiten du, «haurtzaro zoriontsu» baten alde.

Umeen hezkuntzan zer garrantzi du jostaketak?

Haurtzaroan, bere jarduerarik garrantzitsuena da jolasa. Oso tresna baliagarria da umearen garapen afektiborako, psikomotorizitatea lantzeko... Baina, batez ere, haurrek ongi pasatzea da garrantzitsuena; hau da, haurrek zoriontsu izan behar dute.



JAIONE ASTIBIA

Jostailu eta jolas kooperatiboak, zer ezaugarri dituzte?
Jolas hauetan, edo denok ira-

bazten dugu edo denok galtzen dugu; aurkako zerbait dago, baina ez da gutako inor, edo erronka bat dago. Denok parte hartuz, gaudituzko den zerbait, edo ez, baina galduta ere, eraginen zukeen «frustrazioa» tikiagoa da, partekatuta delako.

Zuek sortutakoak dira?

Alemanian bakarrik egiten dituzte. Kometa taldekook, euskaratu eta hedatzen ditugu.

Zein adinetarako lirateke?

3 urtetik aurrera, baita helduentzat ere, horrela umeen eta gurasoen arteko harremana sendotu daiteke. ◀

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Aldin kultur eta kirol elkarteak antolatuta, mendian federatu nahi duen guztiarentzat bilera izango da, bihar. Bertan aipatuko dira mendi aseguru txartela, koberturak eta prezioak. Hitzordua 21:00etan da, udaletxean. Informazio gehiagorako deitu 635 70 00 27 telefono zenbakira.
Ibarra. Maite Franko ipuin kontalaria. 17:30ean, Benito Izagirre kultur etxean. 4-10 urteko gaztetxoentzat. Kultur Trukearen barruan.
Villabona. Udaltalde 21 Ernioaldea herri batzarra antolatuta du udaletxean, 19:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ibaialde erakusketa, ibaien kalitateari eta urari buruz. Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.
Ibarra. Ibarroko, Saharako, Ezpeletako eta Ekuadorreko argazkien erakusketa, Kultur Etxean, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara. Ekuadorreko artisau produktuak ere izango dira. Kultur Trukearen baitan.
Tolosa. Txinara leihoa txoxngilo erakusketa, Aranburu Jauregian, 17:00etatik 20:00etara; asteburuetan, baita 12:00etatik 14:00etara ere.

HITZALDIAK


Tolosa. Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, Ibon Arrizabalagaren eskutik. 19:30ean, Ero-Etxe elkartearen.
Villabona. Aurora Valdivieso sendagilea gripeaz ariko da,



Aneto eta Maladeta, Oargi mendi elkartearekin

MENDIA ▶ Tolosako Oargi mendi elkartek Benaque aldera irteera antolatuta du hilaren 6tik 10era bitartean, hau da, datorren asteartetik larunbatera. Hilaren 6an Tolosatik abiatuko dira, eta Benaquera iritsita Ballibiernako aterpetxera igoko dira; 2 ordu eta laurdeneko ibilaldia izango da, 600 metroko desnibelarekin. Asteazkenean Ballibiernatik abiatuko dira. Aneto igotzeko (3.404 metro; Estasen-eko korridorretik), eta Renclusako aterpetxera jaitsiko dira gero, han lo egiteko; 8 ordu eta laurdeneko txangoa izango da hauxe, eta 1.500 metroko desnibelari egin behar izango diote aurre. Hilaren 8an Pico Paternara (2.629 m.) igoko dira, eta Renclusan egingo dute lo berrira; 5 orduko txangoan, 489 metroko desnibela gainditu beharko dute. Ostiralean, Maladeta (3.308 m.) igoko dute Renclusatik, eta Benaquera jaitsiko dira; 7 orduko ibilaldia izango da horixe, 1.200 metroko desnibela duena. Larunbatean, azkenik, Benaquetik Tolosara itzuliko dira. Izena emateko 630 57 93 95 telefono zenbakira deitu behar da lehenbailehen. HITZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Eneritz.
Familiaren partetik.



URTE ASKOAN
EKAIN. GAUR 5 URTE.
ZORIONAK ETA MUXU BAT FAMILIAREN PARTEZ.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

17:00etan, Biltoki jubilatutako elkartearen.
Zizurkil. Juanito Oiarzabal eta Juan Vallejo mendizaleak, *Himalayismoa atzo eta gaur* gaiari buruz. Ramon Olasagasti mendi kazetaria izango da moderatzaile. *14 ochomiles* ikus-entzunezkoa ere eskainiko dute. 19:30ean, Abulondo kultur etxean. Kirol Asteburuaren baitan.

TITIRIJAI

Tolosa. Txinako Zhangzhou puppet show trupe taldearen *Eskuzorroaren magia* lana, Kultur Etxean, 18:30ean; Txinako Song Song Children Puppet Theatre taldearen *Heriotzaren magistratura* lana, Gorosabelen, 17:30ean; Uruguai-Andaluziako Angeles de trapo taldearen *On Kixote ahaztezina*, Kasinoan, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroza, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, albisteak, oharak...; agenda, iritziak, elkarrizketak, albisteak...; lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Gora Euscadi Chistulari*, Matraialko Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren Eskutik.
22:00-23:00. *Gau Bero* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

hitza txokoa ...POXPOLO, MOKOLO TA KONPAINIAREN "Eskola ta festa" DVDaren irabazleak:

▶ HITZA harpidedunen artean zozketatutako...

- Irene Markos Gonzalez (Tolosa)
- Miriam Cortes Garate (Tolosa)
- Arantxa Dorronsoro Garziarena (Tolosa)
- Jose Gonzalez Cabanillas (Tolosa)
- Garbiñe Azaldegi Arrieta (Tolosa)
- Begoña Irastorza Etxabe (Tolosa)
- Larraitx Tobar Lazkano (Alegia)
- Mapi Ugalde Huegun (Villabona)
- Belen Irulegi Arregi (Leitza)
- Jasone Goienetxe Maritxalar (Leitza)

Asteleheneetik aurrera pasa dezakezue DVDaren bila.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero